



## **MEMORIA, GIPUZKOAKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN BARNE EKINTZAILTZA KORPORATIBOARI ERAKUNDEEN BABESA EMATEKO PROGRAMAREN DISEINUAREN KONTRATAZIOA EGITEKO**

### **AURREKARIAK**

1. Gipuzkoa apustu estrategiko historikoa egiten ari da barne ekintzaitzaren alde; izan ere, bertako erakundeak eta babes eragileak, Gipuzkoako Foru Aldundia buru dela, enpresen barne ekintzaitzaren aldeko etengabeko lana egiten ari dira azken hamarkadan zehar, arreta berezia jarrita industria arloan, jarduera ekonomiko berria eta kalitatezko enplegua sortzeko iturri den aldetik; halaber, etengabeko hausnarketan eta egokitzapen estrategikoan gero eta gehiago oinarritzen den enpresa-kultura sustatzeko ahaleginetan ari dira, betiere kontuan hartuta inguru lehiakorrak eskaintzen dituen aukerak eta aldaketak.
2. Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainek gero eta gehiago behar dituzte eraldaketa lehiakorrari aurre egiteko estrategiak, batez ere intertzio globaleko balioari lotutako alor eta kateetan, non abiadura handiz berritzen ari diren joko arauak. Estrategia horiek baliagarriak dira:
  - a. Enpresen proiektu jasangarriak, errentagarriak, berritzaileak, «glokalak», erakargarriak,

## **MEMORIA PARA LA CONTRATACIÓN DEL DISEÑO DE UN PROGRAMA DE APOYO INSTITUCIONAL AL INTRAEMPRESIMIENTO CORPORATIVO EN LA PYMES GUIPUZCONAS.**

### **ANTECEDENTES**

1. Apuesta estratégica histórica de Gipuzkoa por el intraemprendimiento, a través del esfuerzo desplegado, durante más una década, por sus instituciones y agentes de apoyo, liderados por la DFG-GFA de apoyo continuado al intraemprendimiento empresarial, especialmente industrial, como fuente de creación de nueva actividad económica y empleo de calidad, y de promoción de una cultura empresarial cada día más basada en la reflexión y adaptación estratégica permanentes ante las oportunidades y cambios del entorno competitivo.
2. Necesidad creciente de las pymes de Gipuzkoa de abordar estrategias de transformación competitiva, especialmente en aquellos sectores y cadenas de valor de inserción global donde las reglas de juego se están renovando a gran velocidad. Se trata de estrategias que:
  - a. Ayuden a las empresas a consolidar proyectos de futuro sostenibles, rentables,



partaidetzazkoak eta inguruan sustraituta daudenak finkatzen laguntzeko, eta

- b. bateratzeko produktu, zerbitzu eta konponbide berrien garapena, dibertsifikazioa (negozio nagusiarekin gutxi gorabehera lotutakoa), internalizazioa, berrikuntza (gero eta irekiagoa, helburuak eta mailak kontuan hartuta), eta eragile eta ekosistema askorekin izan beharreko lankidetzak, hain zuzen ere handitzera, berritzera, eta teknologia nahiz talentua lortzera, besteak beste, bideratutako hainbat formula erabilita (organikoak edo inorganikoak).

innovadores, "glokales", atractivos, participativos y arraigados en su entorno, y

- b. Combinen el desarrollo de nuevos productos/servicios/soluciones, diversificación (más o menos relacionada con el negocio principal), internacionalización, innovación (cada día más abierta, con sus diferentes horizontes o grados) y colaboración con múltiples agentes y ecosistemas a través de diversas fórmulas (orgánicas e inorgánicas) orientadas a crecer, innovar, acceder a tecnología y talento, etc.

3. Duela gutxi onartu da «ETE ekintzailea» izeneko etorkizuneko proiektua edo ekintza lerroa, Etorkizuna Eraikiz ekimeneko lehiakortasunerako Think Tankaren hausnarketatik abiatuta:

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuko ekintzaitza eta barne ekintzaitzara bideratutako laguntza estrategikoari gehitzen zaio, arreta berezia emanez Gipuzkoako espezializazio adimenduko lau sektore estrategikoei (fabrikazio aurreratua eta zibersegurtasuna, mugikortasun elektrikoa, gastronomia digitala, biozientziak...)

- b. Eta bat egiten du «Barne ekintzaitzari laguntza emateko euskal ekimenaren» barruan erakundeen artean egiten ari den lanarekin.

3. Aprobación reciente del futuro proyecto o línea de acción "PYME Emprendedora", a partir de la reflexión del Think Tank de Competitividad de Etorkizuna Eraikiz, que:

- a. Se suma al apoyo estratégico al emprendimiento e intraemprendimiento del Dpto. de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de DFG-GFA, con especial énfasis en los cuatro sectores estratégicos de especialización inteligente de Gipuzkoa (fabricación avanzada y ciberseguridad, electro movilidad, gastronomía digital, biociencias...)

- b. Y se alinea con los esfuerzos interinstitucionales de la "Iniciativa vasca de apoyo al intraemprendimiento.



4. Eta erantzuna ematen die «Gipuzkoako ekintzailtza estrategia eta estrategia hori garatzeko ibilbide liburu bat zehaztea» izeneko estrategian jasotako proposamenei.
4. Y, atendiendo a las propuestas de la "Estrategia de emprendimiento en Gipuzkoa y, la concreción de un libro de ruta para su desarrollo"

## **KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA CPV**

Kontratuaren objektua da Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan barne ekintzailtza korporatiboari erakundeen babesa emateko programa bat diseinatzeko ikerketa lanak kontratatzea.

CPV:  
79410000-1 Aholkularitza zerbitzuak merkataritzan eta kudeaketan

79411000-8. Kudeaketako aholkularitza zerbitzu orokorrak.

## **OBJETO DEL CONTRATO Y CPV**

El objeto es la contratación de la realización de un estudio para diseñar un programa de apoyo institucional al intraemprendimiento corporativo en la pymes guipuzconas.

CPV:  
79410000-1 Servicios de consultoría comercial y en gestión

79411000-8 Servicios generales de consultoría en gestión



## **KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Ikus Preskripzio Teknikoen Agiria.

## **KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA**

Kontratuaren objektua den zerbitzuak ematea 4 hilabetekoa izango da zerbitzua hasten denetik kontatzen hasita.

## **AURREKONTUA. AURREKONTU SAILA**

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 100.000,00 € da, (kontratuaren eginkizun guztietarako oroharreko prezio bezala ezarrita) gehi 21.000,00 € (% 21eko BEZa); guztira 121.000,00 € BEZa barne.

Lizitazioaren kostu zuzen eta zeharkako kostuen banakapenak honako hau da (SPKLren 100-2 eta 101-2. art.).

Zuzeneko kostuak (BEZa kanpo):	75.000 €
Zeharkako kostuak (BEZa kanpo):	19.000 €
Bestelako gastuak (BEZa kanpo):	6.000 €
Guztira (BEZa kanpo):	100.000 €
Guztira (% 21eko BEZa barne):	121.000 €

Gastua aurrekontuko kontu sail honen kargura esleituko da:

1 0410.100.227.01.09 2019.  
Zenbatekoa 121.000 € da.

## **CONDICIONES DETALLADAS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

Ver Pliego de Prescripciones Técnicas.

## **PLAZO DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

La prestación de servicios objeto del contrato tendrá una duración de 4 meses a contar desde el arranque del servicio.

## **PRESUPUESTO. PARTIDA PRESUPUESTARIA**

El presupuesto máximo de la licitación asciende a 100.000,00 € (establecido a tanto alzado por la totalidad de las prestaciones del contrato) más 21.000,00 € (IVA 21%), total 121.000,00 €, IVA incluido.

El desglose de costes directos e indirectos de la licitación es el siguiente (art. 100-2 y 101-2 LCSP)

Costes directos (IVA excluido):	75.000 €
Costes indirectos (IVA excluido):	19.000 €
Otros gastos (IVA excluido):	6.000 €
Total (IVA excluido):	100.000 €
Total (IVA 21% incluido):	121.000 €

La partida presupuestaria con cargo a la cual se imputa el gasto es:

1 0410.100.227.01.00 2019, por  
importe de 121.000 €



## ALDAERAK HAUTABIDEAK

Ez dira onartzen.

## ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa egingo da:

- % 50 dagokion faktura aurkeztean, Plana eta lan egutegiarekin batera.
- Gainontzeko % 50a dagokion faktura aurkeztean, lana aurkeztu eta kontratua amaitzen denean.

## EDO VARIANTES O ALTERNATIVAS

No se admiten.

## FORMA DE PAGO

El pago se realizará:

- 50% con la factura correspondiente, a la entrega del Plan y calendario de trabajo.
- 50% restante, con la factura correspondiente, a la entrega del trabajo y finalización del contrato.

## ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

PROZEDURA IREKIA			
	-Arrunta	100.000 €tik aurrera	X
	-Simplifikatua	35.000- 100.000 €	
	-Simplifikatua laburtua	15.000 - 35.000 €	
<b>PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA</b>		SPKLren 168. artikukuko kasuak	
<b>KONTRATU TXIKIA</b>		15.000 € arte	

## PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

PROCEDIMIENTO ABIERTO			
	-Ordinario	A partir de 100.000 €	X
	-Simplificado	Entre 35.000 y 100.000 €	
	-Simplificado abreviado	Entre 15.000 y 35.000 €	
<b>PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD</b>		Supuestos art. 168 LCSP	
<b>CONTRATO MENOR</b>		Hasta 15.000 €	



## **KAUDIMENAREN EGIAZTAPENA**

### ***Ekonomia eta finantza kaudimena:***

Itxitako azken 3 urteetako negozio zifren artean altuena den urteko negozio bolumena, gutxienez, 200.000 euro (BEZA kanpo) edo gehiago izan behar du.

Kontuan hartuko dira Merkataritza Erregistroan edo enpresariari inskribatua egotea dagokion erregistro ofizialean dauden onartutako eta gordailatutako urteko kontuetako kopuruak. Baliozko arrazoi batengatik, lizitatzailleak ez baditu kontuak onartuta eta gordailatuta itxitako azken 3 urteetako negozio zifren artean altuena den urtean (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko betebeharririk ez duelako edo sortu berria den enpresa bat izateagatik), arrazoiak aitortzen jaso beharko du.

### ***Kaudimen teknikoa (Esperientzia)***

Ezinbestekoa da enpresa lizitatzailleak antzeko lanetan duten esperientzia egiaztatzea, gehienez azken hiru urteetan Landa Ingurunearen arloan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda baten bidez, kontratuaren objektuaren izaera bereko edo antzeko zerbitzu edo lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Egiaztatu beharko da egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 100.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea.

### ***Lan-taldea***

Kontratuan parte hartzen duten langileak adieraziko da. Proiektuaren zuzendaritza goi mailako titulazioa duen pertsona batek

## **SOLVENCIA REQUERIDA**

### ***Solvencia económico-financiera***

Volumen anual de negocios que referido al año de mayor volumen de los tres últimos años concluidos deberá ser igual o superior a 200.000 euros IVA excluido.

Se consignarán los valores que consten en las cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil o Registro oficial en el que el empresario deba estar inscrito. Cuando por una razón válida, la licitadora no tenga cuentas anuales aprobadas y depositadas del año de mayor volumen de los tres últimos concluidos (por ejemplo, por no tener obligación de presentar cuentas en el registro correspondiente o por ser una empresa de reciente creación) hará constar la razón en la declaración.

### ***Solvencia Técnica (Experiencia)***

Las empresas licitantes deberán de acreditar como requisito indispensable la experiencia en trabajos similares mediante una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza, en el ámbito que constituye el objeto del contrato en el curso de los tres últimos años en la que se indique el importe, fecha y destinatario público de los mismos. Se deberá acreditar un importe anual acumulado en el año de mayor ejecución igual o superior a 100.000 €

### ***Equipo de trabajo***

Indicación de las personas participantes en el contrato. La dirección del proyecto deberá ser asumida por una persona con



hartuko du, Politika publikoak diseinatzeko eta laguntzeko lanak egitea, ekintzailtza sustatzeko eta laguntzeko arloan, gutxienez, 10 urteko esperientzia izango duena.

titulación superior y con un mínimo de 10 años de experiencia en la realización de trabajos de diseño y acompañamiento de políticas públicas en el ámbito del apoyo y promoción del emprendizaje.

## **BALORAZIO IRIZPIDEAK**

### **Balio-judizio baten arabera irizpideak (% 50):**

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuak zehaztutako beharretara egokitzea aztertuko da.

Preskripzio Teknikoaren Agirian jasotako lanak egiteko eta garatzeko sistema deskribatzen duen memoria tekniko bat aurkeztuko da. Gehienez, 50 puntuz baloratuko da ondorengo parametroen arabera:

- Lanak egiteko proposatu den metodologiaren sendotasuna. 10 puntu.
- Proposamena osatzen duten elementuen zehaztaperen maila eta egokitasuna: 10 puntu
- Proiektuari balio handiagoa emango dizkien proposamenak, ikuspuntu eta ekarpen osagarriak: 20 puntu
- Entregagaiak zehaztea, eskaintzen den egokitzaperen eta zehaztaperen maila: 5 puntu
- Ibilbide-orria eta deribatutako ekintzak diseinatzeko azterketen irismena: 5 puntu

Eskaintzek gutxienez 25 puntu lortu beharko dituzte atal honetan.

## **CRITERIOS DE VALORACIÓN**

### **Criterios dependientes de un juicio de valor (50%):**

Se valorará la adecuación de la propuesta a las necesidades definidas por el Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

Se presentará una memoria técnica descriptiva del sistema de ejecución de los trabajos comprendidos en el Pliego de Prescripciones Técnicas y el desarrollo de éstos, que se valorará con un máximo de 50 puntos conforme a los siguientes parámetros:

- la solidez de la metodología propuesta para llevar a cabo los trabajos: 10 puntos.
- nivel de concreción de los elementos constitutivos de la propuesta y pertinencia de las acciones: 10 puntos
- propuesta de enfoques y aportaciones complementarias que aporten un mayor valor al proyecto: 20 puntos
- determinación de entregables, adecuación y nivel de detalle ofertado de los mismos: 5 puntos
- alcance de los estudios sobre los que se diseñan la hoja de ruta y acciones derivadas: 5 puntos

Las ofertas deberán alcanzar una puntuación mínima de 25 puntos en este apartado.



Formulak aplikatuz balioesteko irizpideak (% 50):

**1. Balorazio ekonomikoa** 20 puntu  
Atal honi 20 puntu emango zaio, formula honen arabera:

$$P = 20 * \text{Gutxieneko eskaintza} / N \text{ eskaintza}$$

Azalpena:

P = Enpresa lizitatuak lortutako puntuazioa

Gutxieneko eskaintza = eskaintzen artean, kopuru baxuenekoa

N eskaintza = Baloratzen den eskaintza ekonomikoren zenbatekoa

Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko

Eskaintza bat ezohikoa edo neurri kanpoko delako adieraziko da, baldin beraren beherapen ehunekoak 10 puntu edo gehiagoz gainditzen badu onartutako eskaintza guztien beherapen batez besteko aritmetikoa, edo % 25ean gainditzen badu ezarritako gehieneko zenbatekoa. Adierazpen hori egin aurretik, informazioa eskatu behar du ustez eskaintza horretan parte hartu duten lizitatu guztiei, eta aholku teknikoa, dagokion zerbitzuari.

**2. Lantaldearen esperientzia** 30 puntu

Egin beharreko lanak ezagutzaren hainbat arloetan ezaguera teknikoa duen talde aditu bat eskatzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiak estrategikotzat hartzen du proiektu hau; horregatik, parte hartuko duten profesionalen profila ezinbestekoa da emaitza onak ateratzeko.

Criterios cuantificables mediante la aplicación de fórmulas (50 %):

**1. Valoración económica:** 20 puntos  
Este apartado se valorará sobre un total de 20 puntos conforme a la siguiente fórmula:

$$P = 20 * \text{Oferta mínima} / \text{Oferta N}$$

Donde:

P = Puntuación obtenida por la empresa licitadora que se valora

Oferta mínima = importe de la oferta más baja

Oferta N = importe de la oferta económica que se valora

Parámetros para considerar una oferta con valores anormales o desproporcionados

Se considerarán, en principio, como desproporcionadas o anormales las ofertas que sean inferiores en más de un 10% a la media aritmética de todos los precios de las ofertas admitidas o un 25% del importe máximo establecido, y su declaración requerirá la previa solicitud de información a todas las empresas licitadoras supuestamente comprendidas en ella, así como el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

**2. Experiencia profesional del equipo de trabajo:** 30 puntos

El trabajo a realizar requiere de un equipo experto y con conocimientos técnicos en distintos ámbitos del conocimiento. Se trata de un proyecto considerado estratégico por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que el perfil de las y los profesionales que intervendrán en el mismo, es fundamental para asegurar sus buenos resultados





Lan-taldearen esperientzia profesionala baloratuko da, politika publikoen diseinuan eta laguntzan, ekintzailatza sustatzeko eta laguntzeko arloan.

Se valorará la experiencia profesional del equipo de trabajo en tareas de diseño y acompañamiento de políticas públicas en el ámbito del apoyo y promoción del emprendizaje

Lanbide esperientzia **EP = (tx1) + (tx2) + (tx3) + (tx4)**

Experiencia profesional **EP = (tx1) + (tx2) + (tx3) + (tx4)**

**tx1:** zerbitzura derrigorrez atxikitzen den proiektuaren arduradunaren esperientzia. Hamargarren urteko esperientziatik aurrera, puntu bat urte bakoitzeko baloratuko da.

**tx1:** experiencia de la persona responsable del proyecto objeto de adscripción obligatoria al servicio. Se valorará su experiencia a razón de un punto por año a partir del décimo año de experiencia.

**tx2, tx3, (tx4):** proiektuko gainontzeko goi mailako langileen esperientzia (proiektuan dedikazio handien duten hiru pertsona baloratuko dira). Esperientzia baloratuko da, hirugarren urteko esperientziatik aurrera, puntu bat urte bakoitzeko, gehienez 5 puntu.

**tx2, tx3, (tx4):** experiencia del resto del personal (se valorarán las tres personas de mayor dedicación al proyecto), con titulación superior, adscrito al proyecto. Se valorará la experiencia a partir del tercer año, a razón de un punto por año, con un máximo de 5 puntos por cada una de las personas a valorar.

(tx1) handiena: 15 puntu  
(tx2, tx3, tx4) gehienez, 15 puntu

(tx1) máximo: 15 puntos  
(tx2, tx3, tx4) máximo 15 puntos

**EP gehienez 30 puntu.**

**EP máximo: 30 puntos.**



## ENPRESA LIZITATZAILEEN PROPOSAMENAK

## PROPUESTAS DE LAS EMPRESAS LICITANTES

**Tokia:** lizitazio elektronikoa (Web)

**Epea:** Gehienez 15 eguneko epea, lizitazioaren iragarkia kontratatzaillearen profilean argitaratu eta ondorengo egunean kontatzen hasita.

**Edukia:** Proiektu hau egiteko aurkezten diren proposamenek, gutxienez ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- **Agiri administratiboak**
- **Balio-judizio arabera baloratuko diren agiriak:** besteak beste preskripzio teknikoen agirian jasotako atalak, lan planarekin zerikusia duten alderdiak eta oinarrietan eskatzen diren gutxieneko baldintzen inguruko hobekuntza proposamenak. Zehazki ondokoa aurkeztu beharko dute:

- Lanari buruz entregatu beharreko materialak definitzea eta zehaztea; ekintzen kasuan, dagokien kronograma aurkeztu beharko da.
- Egin beharreko lanen zerrenda ezartzea.
- Lanen mugarriak zehaztea, bere faseak eta aurreikusten den denboratasuna ezarriz.

Agiriak ez du 35 orrialde baino gehiago edukiko (Arial 10, lerroarte bakuna)

- **Formula bidez baloratuko diren agiriak:**
  - Proposamen ekonomikoa, fakturatuko diren zenbatekoen zehaztapenarekin.
  - Lan taldea: enpresa esleipendunak lantalde bat atxiki

**Lugar:** licitación electrónica (Web)

**Plazo:** no podrá ser inferior a 15 días desde el siguiente a la publicación en el perfil del contratante del anuncio de licitación.

**Contenido:** Las propuestas que se presenten para la realización de este proyecto deberán incluir, al menos:

- **Documentos administrativos**
- **Documentos que servirán para la valoración mediante juicio de valor:** que deberá incluir los apartados indicados en el pliego de prescripciones técnicas, así como aspectos relacionados con el plan de trabajo que incluya propuestas de mejora en relación a los mínimos exigidos en las bases recogidas en el pliego de condiciones técnicas, en particular deberán:
  - Definir y concretar los entregables del trabajo, que deberán incluir necesariamente en el caso de acciones, su correspondiente cronograma.
  - Establecer una relación desglosada de las tareas a desarrollar
  - Definición de hitos del trabajo, determinando fases del mismo y temporalización previsible.

El documento no deberá superar la extensión de 35 páginas con una letra Arial 10 con interlineado sencillo.

- **Documentos que servirán para la valoración mediante fórmula:**
  - Propuesta económica con desglose de los importes a facturar.
  - Equipo de trabajo: la empresa



beharko du kontratua egikaritzeko; lantalde horrek kontratazioan jasotzen diren arlo guztiak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko kualifikazioa eta esperientzia maila izan beharko ditu. Enpresek lantaldean esku hartuko duten pertsonak identifikatu beharko dituzte, informazio hau emanez, gutxienez:

- Izen-abizenak
- Titulazioa
- Kategoria profesionala
- Lan esperientzia (urte kopurua)
- Proiektuari eskainiko dioten ordu kopurua
- Proiektuan izango dituen zeregin nagusiak
- Aplikatzekoa den ordukako tarifa
- Generoa

adjudicataria deberá adscribir a la ejecución del contrato, un equipo humano, que contemple las cualificaciones y niveles de experiencia que garantice el buen desarrollo de todas las áreas contempladas en la contratación. Las empresas deberán identificar cada una de las personas que intervendrán en el equipo de trabajo con, al menos, la siguiente información:

- Nombre y apellidos
- Titulación
- Categoría profesional
- Años de experiencia profesional
- Número de horas de dedicación al proyecto
- Principales tareas a desarrollar en el proyecto
- Tarifa horaria aplicable
- Género

## **BERMEALDIA**

Kontratu honek bi hilabeteko berme epea izango du.

## **PLAZO DE GARANTÍA**

El plazo de garantía del presente contrato será de dos meses.

Donostia / San Sebastián, 17 de junio de 2019

Izptua./Fdo.- Joseba Anonazarain Senperena  
Ekonomia Sustapeneko zerbitzburua  
Jefe del Servicio de Promoción Económica

